

baleike

apaizac obeto espedizioa

euskal arrantzaleen bidetik



HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea

Xabier Azkue, Gurenda Serrano

Koordinatzailea

Itziar Mora

Kazetariak

Itsaso Ibarra

Maitane Urbietta

Itziar Garate

Izaskun Urbietta

Maitane Agirre

Iure Alzibar

Abelin Linazisoro

Haize Galarraga

Mikel Olasagasti

Joseba Alkorta

Kolaboratzaileak

Juan Luis Romatet, Xebas Leiza,

Miriam Romatet, Dani Carballo,

Unai Gijarro, Joanito Dorronsoro,

Eneko Dorronsoro,

Xabier Aranguren, Xabier Aizpurua,

Ibon Aizpurua, Izaga Garzia,

Beñat Fernandez de Arroyabe,

Jon Maia, Eguzki Agirrezabalaga,

Natur Taldea, Ander Hormazuri,

Aitor Manterola

Azalaren argazkia

Ines Aseginolaza

Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

Hizkuntza zuzenketa

Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

gurenda@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

1.100 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

aurkibidea

librean	4
ze berri	6
orain 10 urte	8
elkarrizketa jon maia	9
erreportajea estropadak	15
kirola eskubaloia taldea	19
gure zumai zarra anjel osa arrizabalaga	24
ipuina	28
kultura zine forum	29
agenda	30



Alex Oliden

baloia eskuan

“Herriko jendea mugitzen dugu gehien bat eta hala jarraitu nahiko genuke: herriko taldea izaten.”

BALEIKERen bulego ordutegia: astelehen, asteazken eta ostegunetan 16:30etik 18:30era

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)



Zumaiako Udala

Denborak hori du;

igaro egiten dela. Orduak, ontziak itsasoan, eta uda, oporrak,... Orain post- sindromearekin omen gara guztiok. Ez dakit, nik beti resaka deitu izan diot, baina ponpoxo gelditzen denik ezin uka.

Irailaren aldapan gora izerditan, oporretako motxila astuna bizkarrean, eta ahotik promesak: kirola egingo dut astean bitan. Liburu bat irakurtzen hasi, zigarro gutxiago... eta promesak. Denborak berekin eramango dituenak akaso, udazkeneko hostoak bailiran, edo ontziak itsasoan. Eta Urtezaharra iritsiko da, eta liburu bat irakurtzen hasiko naiz, eta zigarro gutxiago... eta promesak, berriz; bete ez ditugun seinale. Baina ez gara oraingoz oroituko. Denborak hori baitu; ahaztu egiten dela. Abuztuan bisitatu

dugun mendi eder hura..., nola zuen, ba, izena? Imanolik gabeko Sagardo Eguna, iluntzeko oskorria, girien galdera ulertezinak (eske ez dute ingelesez ondo egiten!), eta ontziak itsasoan.

Eraman egiten baititu, ahaztu egiten baititugu, igaro egiten baitira. Ontziak itsasoan.

Eta eutsi! Badatoz bueltan, taup-taup, iluntzeko oskorrian, udazkeneko hostoak bailiran. Hegan? Hegan ez, baina gorri-gorri. Batzuk promesak betetzen dituzten ondorio.

Bejondeizuela, mutilak! Gero ahaztuko bazaigu ere, disfrutatu. Horretarako da denbora.



Eneko Dorronsoro

dani



VIGOREXIAREN LUBAKIA



xa 2

guztiak, eta puntu-puntu jarriko naiz. Deitu dut berriz ere. Pi-pi-pi. Ezinegon ari zait sortzen. Izan ere, orain dela orduerdi zabaldu dute izena emateko epea, eta nik beharrezkoa dut tokitxo bat kiroltasunaren lubakian. 943... eta pi-pi-pi. Baietz lekuri gabe gelditu! Lanera abiatu behar izan dut, oraindik ere zerealak hortza artetik kendu gabe. Autoan noala, telefonoa hartu dut eta lagun bati deitu diot. Ertzainek ikusten banaute, akabo. Haiek bai jarriko nautela puntu-puntu. Laguna joango dela nire partez izena ematera. Spinning egitea maite dut. Maite-maite zaitut, bizikleta estatikoa, ilargiraino ta buelta maite zaitut. Auskalo ordea. Lagunak ezin du 11:00ak aurretik joan Kiroldegira. Izerdi patsetan pasa ditut ordura arteko orduak, berriz deitu dut neuk eta

Goizeko 07:30ak dira, gosaritako zerealen arrastoa oraindik ere hortza artean dudala, telefonoa hartu eta Kiroldegira deitu dut. Pi-pi-pi.

Komunikatzen.

Aurten, bai.

Denboraldi honetan botako ditut txitxi artean ditudan izerdi

pi-pi-pi... kaka morralean! Azkenean iritsi da ordua, 11:10. Deitu diot lagunari, eta pi-pi-pi.. mezua utzi diot. Ezin dut gehiago, bulegotik irtetera noa. Aurten kiroltik egiten ez badut Orioko balea baino potzoloago jarriko naiz, eta beste guztiak berriz Kontxako Pakito bezain lirain... Patrikan dardara, mugikorra da. Mezu bat iritsi zait:

Kaixo! Ez dgo tokirk, dna bteta. Sntitzn dt!

Ez da logikoa. Hau ez zait niri gertatu, baina gertuko bati bai. Normala al da? Nik sukarraren itxura hartzen diot honi. Harrigarria iruditzen zait plaza guztiak bukatu izana hain ordu gutxitan. Gauza bat kirolzalea izatea da, eta bestea Kiroldegiari El Corte Inglesek beherapenetan izaten duen itxura berbera ematea.

Eta eromen honetan, galdera bat. Zergatik ari da enpresa pribatu bat Kiroldegiaren kudeaketa eramaten? Beraientzat irabaziak lortuz, noski. Urteak dira, bai, baina oraindik ez nau konbentzitu ustezko onura horrek. Inguruan baditugu udal baliabideekin ongi funtzionatzen duten Kiroldegiak, eta Zumaian ere apustu bera egin beharko litzateke. Eta ez eskuak esleipenekin zuritu. Ba hori, izerdi patsetan jartzen nauela honek guztiak.

ilarfi
Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24

Itzurun
ATEAK

- Material guztietako leihoak: PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua
Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446

Emilio Perez
Elektrigala, telebista eta instalazio
elektrikoan zaindaria eta konpainia

ADI

BASADI 2 B
20750 ZUMAIA
GIPUZKOA

tel. fax. 943 535 157
E-mail: adiele@suskainet.net

Argazki lehiaketa ez da amaitu

Udako argazki lehiaketan parte hartzeko aukera izan duzue abuztuaren bukaera arte. Baleikeko postan hainbat argazki jaso ditugu, koloretan batzuk eta zuri-beltzean beste batzuk.

Argazki horietatik onena zein den Baleikek izendatutako epaimahaiak erabakiko du irailean zehar, eta irabazleak bi lagunentzako afari baterako txartela jasoko du. Baina, erne! **Baleike.com-eko erabiltzaileek ere parte hartu ahal izango duzue** eta zuen iritzia eman: baleike.com-en sartu eta argazki artxiboko kultura atalaren barruan sortu dugun *Argazki lehiaketa 2006* karpetan dituzue argazkiak. Ikusi, horiei buruzko zuen iritzia eman eta bakoitzak zenbat puntu merezi dituen erabaki. Zuek emandako puntuen arabera, baleike.com-eko irabazlea aukeratuko dugu. Webgunearen iritiz argazki onenaren **irabazleak liburu sorta bat jasoko du.**

Irabazleen izenak eta argazki onenak urriko Baleiken eta Baleike.com-en argitaratuko ditugu. Eman zure botoa! (*Erabiltzaile bakoitzeko boto bat, faborez*).

Iazko irabazlea Gorka Zabaleta izan zen, eta iazko argazkiak ere ikus ditzaitezue baleike.com-en (argazki artxiboa/kultura atala/argazki lehiaketa 2005).



Iazko lehiaketan bidalitako argazki eder batzuk.

ekin
Instalazio elektrikoak
 Telekomunikazioak
 Informatika
 Internet

DIGITAL+

OSA
BARNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
 Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412

7 MARES

Arrain eta mariskoak
 Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
 Tel. 943862309

ILEAPAINDEGIA
TRUITZ

San Telmo, 12
 Tel. 943 860760

Arantza Aramendi

EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea
 943 86 22 65 - 609 46 56 37

TOMAS
TABERNA
 - APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitartekoak

E. Gurrubaxaga plaza 943 86 19 16

Baleikeren argitalpenak sarean

Aldizkariarekin batera beti saiatu izan gara, gehigarri bereziekin edo aparteko argitalpen batzuekin, zenbait gai bereziki jorratzen. Orain sarean jarri ditugu guztiak ikusgai.

Hemeroteka digitala osatzeko lehen pausoa, Baleike aldizkariaren zenbaki guztiak sarean jartzea izan zen. Orain bigarren pausoa eman dugu: Baleike.com-en jarri ditugu urte hauek guztietan argitaratutako gehigarriak. PDF formatuan daude guztiak, eta bertan ikus ditzakezue.

Atalka antolatuta daude:

- Zumaia eta zumaiarrak
- Urtekariak
- Hauteskundeak
- Euskara
- Olagarroa
- Arrauna
- Bazterbide
- Poplitean
- TravelOut

Hauetz gain, badira lankidetzan argitaratutako lanak: Jon Manzidorrekin batera argitaratutako komiki-liburua, edo Bertso Eskolarekin batera urtero argitaratzen dugun bertsopaper lehiaketako bilduma esaterako. Espero dugu hauek ere berandu baino lehen sarean jartzea.

Gehigarriak ikusteko, Baleike.com-eko ezker menuan ikusten den *argitalpenak* atalean klik egin.



Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabiloi eta herriko argietan

Trenbide 5. pabiloia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23
Tel. mugikorra: 608 143409



696 726188
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a

MENDI - ONDO C.B.
ELEKTRIZITATEA
Urola Plaza, 21
Tel. 943860074 - 943861569



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

orain 10 urte

Etxabetarren torneoa, San Migelak eta izerditu beharra

Orain 10 urte... ere antolatu zen Etxabetarren torneoa, baina, gainera, omenaldia ere egin zieten Etxabetarrei, bai eta liburu bat atera ere, torneoaren 25. urteurrena zela eta!!


Badoazela!! Orain ere udako festak amaitu dira... baina, itxoin, San Migelak falta dira...!!

Orain 10 urte, Iñaki Txanbolinei egin genion elkarrizketa. Hizketaldi hartan, sistema honekin erreta zegoela zioen Iñakik. Itxurakeria franko ikusten omen zuen jendearengan... Bo... orain ere antzeko izango da ba...

Orain 10 urte... Gernikako parkeko txiringitoari buruz galdetzen genuen inkestan... Ze iruditzen!! Orain, hura zegoen leku berean edo, komunak ditugu... Ze iruditzen?

Orain 10 urte... orain bezala urte berria hasten zen kirolarientzat, eta animuak ematen saiatzen ginen gure orrialdeetatik...

Orain baino merkeago egongo al zen orduan kirola egitea... herriko kiroldegian, behintzat. Izan ere, ba al dakizue zenbat ordaindu behar duen kiroldegi berriko bazkide ohi batek baja emanda egon ondoren berriro izena eman nahi badu? Lotsarik ez...



Zapaia
Zaldua

Erribera Kalea 20750 ZEMAIJA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

Arkupe

Okindegia eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

jon maia bidaiaria

"Liburuetako abentura bat lehenengo pertsonan bizitzea bezala izan da"

Gehientsuenetan bezala Baleike-ko lokalean egin dugu hitzordua elkarrizketatuarekin. Oraingoan Jon Maiaren txanda da eta zer kontatu asko izango duelakoan gaude. Atetik sartu orduko bere azalaren kolorea deigarria egin zaigu eta ezin ukatu inbidia apur bat eman digunik.

Jon eta Aaron, Mi'kmaq etniako indigena, euskaldunekin bidaiatu zuena.

IURE ALTZIBAR eta MAITANE AGIRRE

Euskal itsas ondarearen berreskurapenaz arduratzen den Albaola Elkarteak "Apaizac Obeto" izeneko espedizioa antolatu zuen Euskal Herriko itsas historiaren kultur hutsunea betetzeko asmoz. Bidaia *Beothuk*-en egin dute, 1565. urtean Red Bayn hondoratu zen *San Juan Nao* ontzian oinarrituta egindako ontzian.

Espedizioa ekainaren 5ean abiatu zen Quebec-etik (Kanada) eta uztailaren 16an amaitu zen Red Bay-n. Zazpi tripulatzailek hartu dute parte, horien artean Jon Maia zumaiarrak.

Jonek adierazi digunez, kronista lanak egitera joan zen Kanadara, baina arraunean ere egin behar izan du. Astebururo jaso ditugu beraien berriak egunkari, irrati zein telebista bidez eta horren ondorio izango da Durangoko azokarako argitaratuko duen liburua. Horrez gain, abenturako irudiak bilduko dituen DVDa erosteko aukera ere izango da.

Bertan bizitako hainbat istorio kontatu dizkigu Jonek.



Zein izan dira espedizio honen helburu nagusiak?

Batez ere, XVI- XVII. mendeetan euskal bale arrantzaleak Ameriketako iparraldeko itsasoetara joaten zireneko historia zati hori ezagutzera ematea, bai kaleko jendeari, baita instituzioei ere. Euskal Herriaren historiaren zati oso garrantzitsua da balearen arrantza, euskaldunak aurreratuenetarikoak baitziren arrantza mota horretan eta nabigazioan. Hemengo ekonomia ere horren inguruan mugitzen zen garai hartan. Han arrantzatutako baleen olioak ekartzen zuten kupeletan; diru asko balio zuten, espedizioak antolatzen ziren eta, horren ondorioz, lanpostu asko sortu. Espedizio horiek hasi zen sagardogintza ere: itsasontzietan sagardoa eramaten zuten eta haren bitaminarekin eskorbutoa (garai hartan marinel gehien hiltzen zuen gaixotasuna) ekiditen zuten. Arpoiaren teknika ere euskaldunek asmatutakoa da eta historikoki oso garrantzitsua izan zen.

Beraz, lan asko dago hori aztertu eta ezagutzera ematen. Hori guztia ahaztuta zegoela iruditzen zitzaigun eta hori zabaltzeko egin dugu espedizio deigarri hau.

Zuk uste duzu instituzioek eta gainerakoek bazutela historia horren berri?

Jakina da euskaldunak aurrenetakoak eta garrantzitsuenetakoak izan direla balearen arrantzan. Gerora ere beti jakin izan dugu zerbait, orain dela oso gutxira arte ere joaten zirelako bakailaotara Ternua eta inguruetara. Gu Kanadan konturatu gara han zenbat lan egin duten hori dena aztertzen. Horren inguruan gauza asko egin dira: lan arkeologikoak, azterketak,

Karmengo Ama, 14
E-20749 **Airroa** (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net

finés
french
euskara
englantzi
espagnol
catalonian
suomi
basc
català
finnois
francés
anglais
catalán
française
castellano
finnish
inglés
baski
catalán

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L.



ad

AUTOS ZUMAIA

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85



Ane Miren Miralles



Iker Leizaola



Jon Maia



Marcos Sistiaga



Xabier Agote



Motxu



Aaron

"Jendearen harrera ere izugarria izan da eta han jende xeheak ere kontatu dizkigu istorioak euskaldunei buruz, baita indioek ere. "

"Ez bazaizu hemengo eguraldia gustatzen, itxaron bost minutu"



Espedizionarioen itxura nabarmen aldatu zen bidaiaren ondorioz.

museoetako euskaldunen aipamenak... Hemen, berriz, ez da inbertsiorik egiten horretan; ez da lan sakonik egiten, unibertsitateetan ez da aztertzen, irakaskuntzan ere ez da agertzen, oso gutxi landua daukagu gure historia izanik. Konturatu gara gai honi buruz Kanadan lan handiagoa egin dela Euskal Herrian baino. Historia hori beti egon da hor, baina egin behar dena da aztertu eta ezagutzera eman.

Espero al zenuten Kanadan historia horri hainbesteko garrantzia emango ziotenik?

Bagenekien Euskal Herriak eta euskaldunak bazutela garrantzia Kanadan; izan ere, bikingoen ondorengo lehenengo europarrak izan ziren ipar Amerikara iristen. Han, bertako erakunde baten eskutik ibili gara eta erakunde horrek Kanada osoko parke naturalak kudeatzen ditu. Oso erakunde garrantzitsua da eta haien museo guztietan daude euskaldunen eta euskal arrantzaleen aipamenak, horren berri ematen



Auto-konponketak
ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



duten kontuak, azterketak, etab. Esaterako, Red Bayn, gure espedizioa bukatu den herrian, bi museo daude euskal balea arrantzaleenak. Herriko badian (Kontxaren laurdena inguru neurtzen du) lau euskal galeoi eta euskal marinelen 160 bat gorpu daude hondoratuta, orain dela 400-500 urtekoak. Leku hori oso garrantzitsua da Kanadan eta gobernuak milioi asko inbertitu ditu bertan. Beraientzat oso garrantzitsua izan da gu hara joatea, ilusio handia egin die eta orduan konaturatu gara kanadarrentzat garrantzia dugula euskaldunok aitzindariak izan ginelako. Herriko jendeak ere asko daki horretaz, ahoz aho eta belaunaldiz belaunaldi pasatu direlako kontuak.

Zer pentsatzen zenuten topatuko zenutela han?

Gure asmoa zen euskal balea arrantzaleen aztarnak dauden lekuak ikusi eta hortik pasatzea, hari historiko horretatik planteatu genuen espedizioa, hain zuzen. San Lorentzoko estuarioan ibili gara eta hor denean daude euskal aztarnak. Gure asmoa zen euskal aztarna horiek bisitatu eta jendearekin egotea: adituekin, arkeologoekin, historialariek... Ibilbidean zehar aztarna asko aurkitu ditugu. Euskal izena daukaten leku asko bisitatu ditugu (Euskaldunon irla, Euskaldunon badia, Euskaldunon portua, Opor Portu...), baina hori zen guk espero genuena.

Gero aurkitu duguna hori eta gehiago izan da: interes handia kanadarren aldetik gure historiarekiko. Izan ere, ia ehun elkarrizketa egin ditugu komunikabideentzat berrogeita sei egunetan. Jendearen harrera ere izugarria izan da eta han jende xeheak ere kontatu dizkigu istorioak euskaldunei buruz, baita indioek ere.

Zer nolako baldintzetan bidaiatu duzue?

Oinarrian XVI. mendeko baldintzetan. Orduko moduko txaluparekin (Red Bayen dagoenaren berdina), modu berean egin eta material berarekin. Arropak Red Bayko hilobietatik ateratakoen arropa patroietan oinarrituak dira. Janaria beraiek eramaten zutena izan da: gazta, urdaiazpikoa, piku lehorrak, baba txikiak, arroza, intxaurrak... Red Bayko museoan, adibidez, oskol bat dago duela 500 urte euskaldunek eramandakoa. Lehorrean, berriz, bertako gauzak jan ditugu.

Eta eguraldiari dagokionez, zer moduz ibili zarete?

Han esaldi bat dago: "Ez bazaizu hemengo eguraldia gustatzen, itxaron bost minutu". Asko aldatzen da eguraldia, txalupak mila kilo pisatzen ditu eta korrontearen alde bakarrik egin daiteke arraunean eta belaz ere haizearen alde bakarrik. Askotan harrapatu gaitu korrontek aurka eta momentu horietan ez dago arraunean jarraitzea beste irtenbiderik, portura iritsi egin behar baita. Hiru egunetan edo eraman gai-

"Elkarri «Zer moduz?» galdetzean, «Apaizac obeto» erantzuten zuten"

tuzte ontzi motorizatuan, ezin genuelako ez aurrera eta ez atzera egin. Gainera, uztailearen 16an Red Bayn egon behar genuenez ez genuen nahi adina denbora, haizea gure alde noiz jarriko zain egoteko. Hala ere, egon behar izan dugu bost egunetan portuan. Behin 14 milia (28 km inguru) egin geni-

tuen arraunean eta bide erdian kontrako haize indartsua sartu zen, eta ontziak atzera itzuli gintuen. Itzultzeko, hamalau ordu egin behar izan genituen ontziari lotuta eta olatu gainean saltoka. Niretzat horiek izan dira nabigazioko unerik gogorrenak. Arraun saio gogorak ere egin behar izan ditugu, 8-10 ordu arraunean. Gauez ere aritu gara

Adierazpen batzuetan esan duzu bidaiari zailagoa izan dela idaztea baino eta bidaiaren gogortasunak baldintzatu egin zaituela momentuko sentimenduak idazteko garaian. Zenbateraino izan da hau horrela?

Txalupan belaz gindoazela idazteko aprobetxatzen nuen, baina ez nuen gogo handirik izaten eta ez nuen ezer asko idazten. Lekuak ikusten, hitz egiten, atsedean hartzen, jaten... joaten ginen. Kronikak portuan idazten nituen eta horretarako ordenagailu bat eta argindarra bilatu behar izaten nituen. Herriko jendearen etxeetan aritu naiz idazten. Hala ere, portuetara iristen ginenean jendea izaten genuen zain eta laguntza eskaintzen ziguten. Zentzu horretan, idaztea ere nahiko abentura izan da, edozein ordutan baliabideak aurkitu behar baitziren.

Jendearen etxeetan lo egin duzuela diozu. Hori guztia ez al duzue aldez aurretik pentsatuta eraman?

Egunero topatu behar zen leku bat lotarako. Adibidez, lehenengo bi asteetan gauez heltzen ginen eta lo egin dugu kirol portuetako komunetan, taberna batzuetako terrazetan, arrantzaleen etxeetan, museoetan, faro batean, hondartzetan, indioen etxeetan, txalupan, garabi batzuen azpian, arrantzaleen txaboletan... Leku asko ziren argindar eta urik gabekokak. Beste batzuetan parke naturaletan egin dugu lo.

Nolatan jarri diozue espedizioari "Apaizac Obeto" izena?

Jesuita esploratzaile bat Ternuara joan zen duela 400 urte eta berak idatzi zuen bertako indioek gauza bat baino gehiago esaten zutela euskaraz. Besteak beste, elkarri "Zer moduz?" galdetzean "Apaizac obeto" erantzuten zuten. Indio eta euskaldunen artean hizkuntza bat sortu zen merkataritzarako, ia 200 urtean hitz egin zena.



Hara ongi-etorria ematera joandakoek ere probatu zuten ontziaren gogortasuna.

Bestalde, ontziak *Beothuk* dauka izena, Ternuan bizi zen indio tribu batena. Jada desagertuta dago *Beothuk* tribua, ingelesak Ternua konkistatzen joan zirenean hil zituztelako eta, beraz, haiei eginko omenaldia izan da. Indioen kultura eta hizkuntza galtzen hasita daude eta hori zabaldu nahi izan dugu Kanadan izen horiekin.

Tripulazioko kide bat, Aaron, Mi'kmaq etniako indigena izan da. Nolako harremana izan duzue berarekin? Nola komunikatu zarete elkarrekin?

Oro har, ondo moldatu gara, baina bera pixka bat bereziagoa zen. Hizkuntza ezberdina zen, berak ingelesa bakarrik hitz egiten baitu eta horrek ere izan du eragina. Berarentzat ere esperientzia ederra izan da, ez zuelako bere kultura ezagutzen.

Zer esango zenuke Mi'kmaq etniari buruz?

Euskaldunekin tratu handia izan zuten eta hizkuntza bat sortu zen euskara eta mi'kmaqueran artean. Beraiek esaten dute euskaldunak eta haiek zirela laino artean nabigatzen onenak.

30.000-40.000 inguru dira eta nazio nortasuna dute. Beti izan da herri ibiltari bat eta urtaroen arabera itsasora edo basora mugitu izan dira. Kanadako San Lorentzoko estuarioko probintzietan banatuta bizi dira. Batzuk Quebecen daude eta beste batzuk Kanadan. Quebecokoak hobeto tratatzen dituzte; Kanadan, berriz, bi erreserba daude eta haietan bizi direnak bakarrik onartzen dituzte mi'kmaq gisa.

Ikusten da oso zapalduak egon direla, baina orain zenbait lekutan kontzientzia har-

tzen ari direnez, nortasuna berreskuratu nahian dabilta. Hala ere, ez dira asko eta ez dute indar askorik. Batzuk folklorismoan erorita daude: erreserban bizi eta artisau lanak egiten badituzte ere, lumak jartzen dituzte turistentzat. Gu egon ginen erreserban (Lenox Island) 400 lagun bizi dira eta haiek, esaterako, ez dira folklorismoan bizi. Denak dira indioak, arrantzan egiten dute eta kultura berreskuratu nahian ari dira: gazteak eskolara joaten dira astean ordu batzuez eta mi'kmaqueraz egiten dute. Ikus daiteke nahiko errealitate zaila dutela.

Zer dakite euskaldunetz?

Ez dakite ia ezer. Quebecen zerbait gehiago zekien jendea topatu genuen, baina, oro har, gaur egungo Euskal Herriaz ez dakite ezer.

Nikol  Enea

TABERNA

Amaiako plaza

ZALLA
Taberna - Erretegia

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387



Deigarria da jendeak nola hitz egiten duen duela 300 edo 400 urteko kontuez. Ternuara iritsi ginen lehen portuan arrantzale batek galdetu zigun ea nongoak ginen eta euskaldunak ginela esatean erantzun zigun Ternuara lehenengo txakurrak euskaldunek eraman zituztela. Beste bikote batek adierazi zigun ingelesak Ternuara heltzean han zeuden euskaldunek abizenak aldatu zituztela ingelerazkoak jartzeko. Gehienek ere, etxean entzundako istorioak dakizkite.

Orain arteko guztia kontuan hartuta zer moduzko esperientzia izan dela esango zenuke?

Nire ustez, gure historia ezagutzeko bultzada bat izan da eta pertsonalki oso aberasgarria. Inoiz egiterik esperoko ez nukeen gauza ikaragarria izan da. Liburuetako abentura bat lehenengo pertsonan bizitzea bezala izan da. Azken finean, ni idaztera joan naiz, baina egunero txalupak berak idazten zuen liburua. Liburua egunero nola sortzen zen ikusteko aukera izan da. Lehengo euskaldun haien lekuan jartzeko aukera eman dit, haien sentsazioetara hurbiltzeko, haien arropekin, txalupa berarekin... Historia barrutik ezagutzeko aukera eman dit, denboran bidaiatzea bezala izan da. Nik aspaldi neukan interesa gai horretan, baina ez nuen inoiz pentsatuko aukera edukiko nuenik horrelako abentura bat bizitzeko, niretzat opari bat izan da.

"Ia egunero esaten genuen «Orain arteko lekurik politena hau da»"

"Bukatzearen emozioa, txalaparta soinua arraunean heltzen ari ginela, Karidadeko Bentakoak jotzen, Maialen Lujanbio bertsoan, etxeakoak..."

Gauza asko ikasi ditut, bai historiaz, baita bizitzaz ere. Egunero lotarako lekua bilatu behar duzunean konturatzen zara zer den hori eta egunero hori jasaten dutenak nola egon daitezkeen. Beraz, oinarriko gauzak baloratzen ikasi dut: arropa lehorra, janaria...

Esperientzia osoa kontuan hartuta egon al da unetik benetan hunkitu zaituenik eta ziurrenik betirako gogoratuko duzunik?

Politena izan da egunero hunkitu garela, ia egunero esaten genuen "Orain arteko lekurik politena hau da". Paisaia aldetik ikusgarria izan da, histo-

riaren hari horri jarraitzea izugarria, baleez inguratuta nabigatzea hunkigarria eta ikusi ditugun irla guztiak eta bertako animaliak (fokak, hegaztiak, oreinak) ikustea zoragarria. Euskaldunen irla ezagutu genuen unea ere gogoratzekoa izan zen, zergatik aukeratu zuten ulertu baikenuen: baleak eramateko egokia zelako, haitz zapalak eta luzeak zituelako... Ternuara iritsi ginen eguna ere aipagarria izan zen, euskaldunen historian beti izan delako mitikoa.

Red Bayra heldu ginen eguna ere oso polita izan zen: bukatzearen emozioa, txalaparta soinua arraunean heltzen ari ginela, Karidadeko Bentakoak jotzen, Maialen Lujanbio bertsoan, etxeakoak... Amaiera ere oso polita izan zen Euskal Jai handi bat egin baikenuen euskaldun eta indigenen artean.

CROISSANTERIA

pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

Rosi
garbiketak

- * Etxeak eta dendak
- * Enpresa eta auzo lanak
- * Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670

Galdona

burdindegia

Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
943 143346

Juan Belmonte, 15 Faxe. 943 861330

Telmo Deun

berriro ere olatuan

Behetik gorako denboraldia izan da aurtengoa Aita Mari Arraun Elkartearentzat. Hasiera gorabeheratsu baten ondoren, gorako bidea hartu eta

Kontxaraino heldu da herriko trainerua. Gainera, herrian 80ko hamarkadako giroa berpiztu dute aurtengoan arraunlariek.

Irudiak: Juan Luis Romatet, Aitor Manterola, BALEIKE, www.LaMarinera.net





Telmo Deun

berriro ere olatuan

JOSEBA ALKORTA eta MIKEL OLASAGASTI
Aita Mari Arraun Elkartearen denboraldiari gainbegiratu bat egingo diogu; izan ere, bikaina izan da oro har.

Ohi bezala, batelek eman zioten hasiera arraun sasoiari. Zumaiarrek emaitza bikainak lortu zituzten, bai gazte, bai senior mailan. Bereziki azpimarragarriak dira seniorretan lortutako Gipuzkoako txapelketa eta Euskadiko txapeldunordetza.

Ondoren, Aita Mari Arraun Elkarreak hiru trainerilla uretaratu zituen, traineruen denboraldiari begira prestatzeko. Emaitzak ez ziren uste bezain onak izan, eta aipagarriena Gipuzkoako txapelketan lorturiko laugarren postua izan zen.

Urte hasierako batel eta trainerillak amaituta, arraunlariek buru-belarri ekin zioten traineru denboraldiari. Iazko emaitza bikainen ondoren, aurtengo arraun denboraldia berezia izatea espero zen, *Telmo Deun* ontziak liga gorenean estreinakoz aritu behar baitzuen. Iaz ez bezala, aurtengoan zumaiarren helburua mailari eustea zen, esan baitaiteke hobe dela onenen artean atzean ibiltzea, bigarren mailan banderak irabazten jardutea baino.

Behin helburuak finkatuta eta zaleen aurrean aurkezpena eginda, uztailaren 8an Riveira herrian eman zitzaion hasiera San Miguel ligari. Lasaitasuna lortzeko, hasierako estropadetan puntuak bil-

Hobe da onenen artean atzean ibiltzea, bigarren mailan banderak irabazten jardutea baino.

tzen saiatu ziren. Lehen estropadetan, ordea, liga berriaren zama eta urduritasunaren ondorioz, emaitza kaxkarrak lortu zituzten. Gainera, Laredo eta Zarautz igo berrien emaitza harrigarriek Arraun Elkartean urduritasun puntu bat eragin zuten, *Telmo Deun*-ek ez baitzuen hamargarren postua hobetu. Nolanahi ere, lasai jarraitu zuten eta pixkanaka emaitzak hobetu zituzten. Vigoko bandera izan zen gorakadari hasiera eman zion estropada, bertan lortutako seigarren postuak jaitsiera postuetatik urruntzea ahalbidetu baitzuen.

Momentu horretatik aurrera, eta Hondarribiko estropada salbuespen, *Telmo Deun* ontzia ez zen zortzigarren postutik jaitsi. Gainera, etxeko banderan, itxura ona eman zuen.

Zumaiako estropadan zazpigarren

Abuztuaren 5ean jokatu zen Zumaiako Ikurrina. Herria girotzeko asmoz, Udalak banderak salgai jarri zituen "Aupa Zumaia" lemapean, herria gorritz janzteko. Ekimenari

Behin sailkatuta, edozein emaitza izango zen garaipena.





ESTROPADAK'06



Horrela ospatu zuten arraunlariek Kontxan lortutako arrakasta.

harrera ezin hobea eman zion herriak eta Zumaiako balkoiak gorriz atondu ziren estropada egunerako. Goiz-goizetik giro ezin hobea bizi izan zen herriko kaleetan, beste traineruetako zaletu asko etorri baitzen herrira.

Itsaso zakarrean egin behar izan zuten arraunean arraunlariek. *Telmo Deun* lehen txandan aritu zen, Laredo, Pasai Donibane eta Mecos-ekin batera. Txandan erraz gailendu ziren zumaiarrak, eta bigarrenari hamar segundoko aldea atera zioten. Estropada amaieran, zazpigarren postua lortu zuen *Telmo Deun*-ek, bi ontzi atzean utziz. Azkenik, Ikurrina Oriora joan zen, Castrokein lehia bikainean ibili eta gero.

Zumaiako estropadaren ondoren, mailari eusteko helburu nagusia lortuta zego-

ela eta, helburu berriak finkatu zituzten Arraun Elkartean; horien artean, Zarauzko eta Kontxako sailkapen estropadak. Jakina denez, Zarautzen bi eguneko estropada izaten da. Bertan, *Telmo Deun* ontziak zortzi eta zazpigarren postuak eskuratu zituen, eta sailkapen orokorrean zazpigarren postua lortu zuen.

Zarautzen lortutako emaitza onak Kontxarako itxaropenak piztu zituen Arraun Elkartean zein herrian, bertan lortutako zazpigarren postua nahikoa baitzen Kontxako bi igandeetan uretan izateko. Bazirudien Kantabriako trainerua ez zela Donostiako uretan arituko, baina epaileen azken orduko erabakiaren ondorioz, gonbidatu egin behar izan zuten antolatzaileek. Ondorioz, osteguneko estropadan polemika izan zen nagusi.

Zumaiako balkoiak gorriz atondu ziren estropada egunerako.

Benetako marea gorria izan zen zumaiarrena.

Sailkapen estropada estilutsuan Telmo Deun bosgarren

Abuztuaren 31n izan zen Kontxarako sailkatze estropada. Azken orduko berrien arabera, Astillero bertan izango zen eta horrek kezka sortu zuen herrian, Astillero txartela lortzeko hautagai nagusietako bat baitzen eta zumaiarren aukerak murriztu egiten baitziren nabarmen. Hala ere, zumaiarrek burua hotz, urteko estropada onenean sailkapena lortu zuten. Eta nola lortu ere!!, atzetik ontzi indartsuak utzita (Orio eta Hondarribia, adibidez).

Ohi bezala, sailkatze estropadan zumaiar zaletu ugari joan zen trainerua animatzera. Donostiako portuan gorria zen nagusi eta behin sailkapena lortuta, zaleen poza eta oihuak nabarmenak izan ziren arranpla inguruan. Bat baino gehiago hunkitu zen eta malko eta besarkada



Telmo Deun

berriro ere olatuan



Gorri ugari ikusi zen Donostiako kaian, eta dena ez zen Castroko jarraitzaileena.

Behin sailkapenaren saria lortuta, Luxiak arraunlari guztiei eman zien estropadaz gozatzeko aukera.

ugari ikusi ahal izan genituen. Izan ere, hamalau urte ziren *Telmo Deun* bere kabuz Kontxan aritzen ez zela (2001ean Getariarekin aritu zen).

Behin sailkapenaren saria lortuta, *Luxia* entrenatzaileak arraunlari guztiei estropadaz gozatzeko aukera eman

ziren. Horrela, bi igandeetan arraunlari guztiek izan zuten aukera Donostiako uretan arraun egiteko.

Kontxako estropada: arraunlari eta zaleen gozamena

Arraunlari zein zaleen gozamenerako estropada izan zen Kontxakoa. Arraunlariak ederki gozatu zuten uretan, gehienek lehen aldiz parte hartzen baitzuten arraunaren olinpiada honetan. Zaletuek, bestalde, txarangak jarritako giro bikainarekin gorritz margotu zuten Donostiako alde zaharra eta portuko inguruak. Gainera, hainbat zumaiar gazte koadrila bildu ziren, batzuk bandera erraldoi eta guzti. Benetako marea gorria izan zen zumaiarrena.

Kirol arloari dagokionez, lehen igandean Zumaia lehen txandan aritu zen. Berreña, Orio eta Arraunlariak lehen posturatu zuten. Kontxako estropadak, beraz, arraunlari guztiek gozatzeko aukera eman zuten. Lehen estropada ona egin ondoren, bigarren estropadak, beraz, lehen posturatu zuten. Lehen estropadak, beraz, lehen posturatu zuten. Lehen estropadak, beraz, lehen posturatu zuten. Lehen estropadak, beraz, lehen posturatu zuten.

Bigarren igandean, are eta jende gehiago joan zen Donostiako portu ingurura. Zumaiarren lana ez zen txarra izan, nahiz eta kontsolazio txanda irabaztea zen beren helburu nagusia. Hala ere, bigarren posturatu zuten. Lehen estropadak, beraz, lehen posturatu zuten. Lehen estropadak, beraz, lehen posturatu zuten. Lehen estropadak, beraz, lehen posturatu zuten.

izan zuten Donostiako Alde Zaharrean eta ondoren herriaren harrera beroa jaso zuten. Kofradia inguruan ere jende ugari bildu zen arraunlarien lana txalotzeko. Bertan, kirolariak ere eskertu zuten herriaren aldetik jasotako berotasuna.

Badirudi, aurtengo denboraldiak arraunaren sukarra eragin duela Zumaian. Aurtengoa susperraldi urtea izan da, urte askoren ondoren *Telmo Deun* goi mailako ligan eta Kontxan aritu baita. 80ko hamarkada ahaztezinaren ondoren ez zen herrian horrelako arraun girorik antzematen. Horrenbestez, Aita Mari Arraun Elkarteko kide guztiei eta bereziki arraunlari eta prestatzaileei, **ZORIONAK eta AUPA TELMO DEUN!!**

kirola

alex oliden eskubaloi taldearen entrenatzailea

Oso ohikoa ez bada ere, herriko kiroldegira jo dugu, oraingoan elkarrizketa egiteko asmoz. Alexekin elkartu ondoren, lasai egon eta grabagailua martxan jartzeko leku bila hasi gara. Orduan aurkitu ditugu eskailerak. Ez da, agian, tokirik egokiena izango, baina hitz egiteko aukera, behintzat, eskaini digu.

"Lehenengo helburua beti mantentzea izaten da, eta hori ez badugu lortzen, porrota izango da"

IURE ALTZIBAR

Herriko kirol taldeak hasiak dira denboraldiaurreko prestakuntzetan. Hil honetan Pulpo eskubaloi taldeko mutilen goi mailako taldeko entrenatzailearekin bildu gara, Alex Olideneekin, alegia. Urteak daramatza eskubaloia- ren munduari lotuta eta dagoen giroari esker gustura dabilela aitortu digu. Horrez gain, denboraldi honetarako berrikuntzen inguruko informazioa ere eman digu.

Hasiak zaudete prestakuntza fisikoarekin, baina noiz hasten da liga?

Liga irailaren 23an hasten da, baina guk hiru aste eta erdi daramatzagu entrenatzen. Lanean sei aste lehenago hastea komeni izaten da. Gainera, ez dugu entrenamendu asko egiteko aukerarik eta saiorik gogorrena orain egiteko aprobeztatzen dugu, eta ia egunero entrenatzen

gara astegunetan. Denboraldian zehar lana eta ikasketak direla medio ez dugu asko eta kalitatez entrenatzeko aukerarik izaten, eta horregatik gustatzen zaigu gogor hastea. Bukatu, berriz, San Telmoak aldera bukatzen da; aurreko denboraldian garaiz bukatu genuen, baina oraingoan partidua dugu San Telmo bezperan. Gainera, azkena da, eta ea ordurako helburuak lortuak ditugun!

Helburuak aipatu dituzu. Zein dira denboraldi honetakoak?

Lehenengo helburua beti mantentzea izaten da, eta hori ez badugu lortzen, porrota izango da. Hortik aurrera etor daitekeen guztia ongi etorria izango da. Badaude bi edo hiru talde beste maila batekoak direnak eta beste helburu batzuk dituztenak, baina guretzat haien mailara heltzea ezinezkoa da. Bestalde, gure kategorian ber-



parabidun kamioia / baskulagaria
garabia: 15m.-1u.



GARRAIOAK
Asensio Artetxe Iturbe

Tel: 943 53 / 189 / 655 / 06 55 /
Iruñea, 4 2A (Zumaiain) - Aitzpilagotza, 161 (Mondram)



gofi
haur jantziak

Amaiako plaza z/g Tel. 943 860959



TALAI
INMOBILIARIA 943 143361
BIDAIAK 943 143323
Ortega y gasset, 1

dintasan handia dago eta gauzak ondo egiten dituenak postu polita lor dezake. Kategoria mantendu ondoren, erdi aldean edo ahalik eta goren ibiltzea da gure helburua.

"Bi edo hiru baja izan ditugu, baina gazteak ere etorri dira jubeniletatik"



Bajarik ba al duzue?

Bai, bi edo hiru baja izan ditugu. Baina gazteak ere etorri dira jubeniletatik. Kategoria horretan jolasteko adina pasa zaien bost jokalaririk iritsi dira eta bik gurekin oso sarri jokatzeko espero dugu. Beste hirurak, berriz, uste dut antolatzeko asmoa dugun bigarren taldean jokatu dutela.

Alde handia al dago jubeniletatik zuek zaudeten Espainiako 1. Maila Nazionalera?

Tartea dezentekoa edo handia dela esan daiteke. Horregatik, jokalariek babesa behar dute eta taldean esperientziadunak izatea ondo etortzen da. Urte batzuk jokatu izanak lasaitasuna ematen du jokatu eta helburuak lortzeko, eta gazteei eman diezaieketen babesa ere garrantzitsua da.

urteetan aukera gutxi izan dutenek eta eskubaloia utzi nahi ez dutenek; kirol pixka bat egiteagatik jokatu luketen beterrano batzuek; behetik etorri eta gure taldean lekurik ez duten gazteek; eta maila ona bai, baina lana dela eta entrenatzeko zailtasunak dituzten jokalariek. Uste dut denen artean talde polita osatuko dela, jende gazte askorekin. Gainera, beti egongo da aukera hortik jendea gure taldera igotzeko.

Bigarren talde batez hitz egin duzu. Azaldu, mesedez.

Aurtengo asmoa beste talde bat sortzea da, baina berria izanik kategoria baxuenetik hasi beharko du. Talde horretan honako jokalariek hartuko dute parte: aurreko

Beraz, esan daiteke badagoela zaletasuna herrian?

Bai, tradizio handia dago. Hogeita hamabost bat urte izango dira hemen eskubaloian jokatzen dela. Azkeneko hogeitau urte inguruan urtero egon dira taldeak kategoria



- * Egunko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelatik eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379



**TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK**
ERRIBERA, 8 943 861694

ARozTEGIA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505



Tel. 943 860000

**ERROTA
OPILOKINDEGIA**

guztietan. Orain ikusten dugu interesa piztu egin dela herrian. Duela zazpi urte kategoria honetara igo ginenetik, pixkanaka sendotu egin gara eta jendearen interesa piztu egin da, bai ikustera etortzeko, baita praktikatzera etortzeko ere. Beraz, oraingoz ez dugu arazorik lehen taldea elikatzeko.

Eta partiduak ikustera etortzeko garaian ere nabari al da zaletasuna?

Jendea etortzen da. Kontuan hartu behar da gauden kategorian egonda urrutiko taldeak eta eskubaloian tradizio eta sona handia dutenak etortzen direla. Horren ondorioz, Zumaiako talde "txiki" bat horien aurka jokatzen eta, askotan edo batzuetan, behintzat, partiduak aurrera ateratzen ikus-tea harro egoteko modukoa dela uste dut. Nire iritziz, gainera, jendeak horrela ikusten du eta aitortzen digu meritua.

Zuk urteak daramatzazu entrenatzaile eta aurretik jokalaria izan zinen. Zer esango zenuke eskaintzen duela eskubaloiak?

Herritarrei ariketa fisikoa egiteko antolamendua eskaini nahi diegu. Gainera, talde batean mugitu eta talde giroa ezagutzeko aukera ematen dugu. Indibidualismoa nagusi den garai honetan jendea talde giroan ohitzea bilatzen dugu. Bestalde, bidaia asko egiten direnez, lekuak ezagutzen dira eta hori aberasgarria da.

"Aurtengo asmoa beste talde bat sortzea da, baina berria izanik kategoria baxuenetik hasi beharko du."

Aipatutako eskaintza hori aurrera eramatean zailtasunik sortzen al da?

Zailtasunak lanerako jendea bilatzeko orduan ditugu: entrenatzaileak, delegatuak... Nahikoa konpromisoa da. Zuzendaritzan ere lan handia dago bederatzi talde (agian datorren denboraldian hamar) antolatzen. Batzuetan ikusten dugu babesak badugula, baina lana modu finkoan egiteko jende gutxi dago, bai antolakuntza aldetik, baita kirol aldetik ere. Gainera, herriko jendea mugitzen dugu gehienbat eta hala jarraitu nahiko genuke: herriko talde bat izaten.



OSTOLAZA
BURDINDEGIA

Jose M^o Korta Industrigunea
A1 - 4. Pabilioia
tel.: 943 86 50 68
fax: 943 86 13 45
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

TXINGURRI
Koop. Elk.

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAI
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3^a 20.800 ZARAUTZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
...mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kirol zelaien mantenimendua
Txostenak ...
analkularitza teknikoak.
Balorazioak

Nekazaritza Injineru Teknikoak

ALTZARIAK
OSTOLAZA
AROTEGIA

Mota guztietako altzariak eta arotzegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

ZOZKETA!!

Zumaiako txokoak

Asmatzen duzuenon artean, Txapartegik emandako tarta eder bat zozketatuko dugu. On egin!



Zumaia eta inguruak ez ditugu behar bezala ezagutzen, altxor txikien jabe gara eta askotan ez gara konturatu ere egiten... Txoko honek lagunduko digu gure txokoak ezagutzen.

GALDERA:

Zumaiarrok kostalde paregabearen jabe gara. Bai Getaria aldera begiratuta, bai Deba aldera begiratuta, altxor handi--handi bat daukagu, gutariko askok eta askok ezagutzen ez dutena, gainera. Horregatik, itsasbazterterra joango gara gaurkoan.

Algorritik ezkerraldera, harraldetik Deba aldera hartuz gero, bost bat minutura argazkiko paraje hau aurkituko dugu. Inguru honetan, itsaslabarrak zuritu egiten dira itsasoaren gainean eta menditik datorren errekak salto egin behar du harri biribiletara jaisteko. Udan, apenas dakarren urrik; baina neguan, euri asko egiten duenean, ikuskizun berezia eta ederra da ur jauzia. Garai batean, errekako ura zikin arrastorik gabe etortzen zenean, haitzean ibili eta gero dutxatu ere egiten omen ziren hor, etxera joan aurretik.

Itzulunguru gehiago gabe, hauxe gaurko galdera: nola izena du argazkiko paraje edo erreka horrek?

(Arrasto txiki bat: inguruko baserri baten izena dauka)

Erantzunak elkartea@baleike.comera bidal, Baleikeko buzoian utzi (Juan Belmonte 29 behea) edo 943 86 15 45 telefonoan eman irailaren 29a baino lehen. Erantzunekin batera izen-abizenak eta telefono zenbakia adierazi.

**Aurreko zenbakiko erantzuna:
Olazabal idazkarian**

**Parte hartu eta
zorte on!!**

Antonio Etxabe



*Gizonezkoen
erropak*

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407



- Portatila eta ordenagailuak
- Laguntza teknikoa
- Tresna digitalak



Eusebio
Gurrutxaga, 6
tel. 943143395
ertz@facinet.es

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4 tel: 943 860970

Txoko berri honetan, zozketa bidez sariak emango ditugu hilero.
Baina, erne! Parte hartzeko bazkide izan behar duzue !!
Idatzi elkartea**@baleike.com helbidera, zuen izen-abizenak eta telefonoa adieraziz. Bestela, deitu telefonoz (943 86 15 45) edo utzi zuen mezua BALEIKERen buzoian. Mezuak bidaltzeko azken eguna: urriaren 13a.**


Oraingoan, sari hau zozketatuko dugu.

Urriaren 20an, Ahulkiak antzezlanaz gozatzeko aukera izango duzue. Guk antzerki hori ikusteko bost lagunentzako bina sarrera ditugu.

Emaitzak web orrian jarriko ditugu, dagokion egunaren aurretik.

Zorte on!!

Udaleko Kultur Batzordeak emandako txartelak.



Itziar lamuedra
patxi santamaria
harkaitz cano

Aulkia. Aulki elektrikotik hasi eta bizarginaren aulkira, erregeen tronutik behia jezteko erabiltzen den banketatxora, geltokietako aulkia nahiz ospitaleko eserleku plastikozko, badira mila eta bat aulki...

Historiako une ezberdinen erreposoa egiten du errezitaldi antzetzut honek, aulkiak (edo ahulkiak) protagonistatzat hartuta.



EGOKI



*Erloju
eta bitxidenda*

E. Gurrutxaga plazan

**BEDUA
ITURGINTZA S.L.**
ANTONIO AZPILLAGA



**-KALEFAKZIOA
-ZORU BERO-EMAILEA
-GAS INSTALAZIOA
-GAS NATURALA
-BAINUGELAK ETA SUKALDEAK**

Jose Mari Korta Industriegunea, 9- Mod.
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
Tel. 943 14 33 69

anjel osa arrizabalaga

(eta 3)

Anjel Añeza

ABELIN LINAZISORO

Gaia aldatuz, herriko festak ailegatzeko amorratzen ibiliko zineten, ezta?

Pentsa zak. Goiz eta arratsalde ia beti ilundu arte astean sei egun eiten ginien lan eta San Pedroetan hiru egun jai jarraian... Bueno. Kristona! Eta San Pedro eguna osteguna tokatzen zanian... Jo! Lau egun erreskan. Hura huan, puff!, oporrak bezela. Eta "Sabado ingles" jarri zutenian... Bueno, ematen zian... ez zekiat zer ailegatu zala. Sapato arratsaldia jai! Jo!

Zer festa mota izaten ziren San Pedroetan?

Ba, Hotel Amaya aurrean karrerak. Zinta-karrerak, bizikeletakin, zaku-karrerak... Bizikeleta karrera ere Zumai inguruan izaten huan. Baina gu behin ilundu ezker, etxera. Gauz ezin izaten ginien erden kalea. Gure aittari ez zikuan gustatzen. Amatik balitz, bai, baina... Gauz teatroa bazan ere, nahiko lan. Akordatzen nauk behin Hotel Amayan

*“Goiz eta arratsalde ia
beti ilundu arte astean
sei egun eiten ginien
lan eta sanpedroetan
hiru egun jai
jarraian... bueno.
Kristona! Eta sanpedro
eguna osteguna
tokatzen zanian... jo!
Lau egun erreskan!
Hura huan, puff!,
Oporrak bezela.”*

teatroa zala eta guk aittari hainbeste aldiz eskatu gitxuan eta azkenian utzi ein zigun. Teatroa gaueko hamabitan bukatzen huan eta gure gurasoentzat hura oso berandu huan. Bueno, baina hori gerra baino lehen izango huan. Nik hamahiru urte nittula.

Hotel Amayan, orduan, zinetik aparte antzerkia ere izaten al zen?

Bai. Biak ematen zitien. Zinea eta antzerkia.

Don Wenceslaok Mari Kaleko horretan zinea botatzen zuenean, zuek joaten al zineten?

Bai. Asteburuetan bai. Baina ostegun arratsaldetan ez ginien juterik izaten. Lehen ere esan diat, astuakin... soura.

Jai egunean noiz botatzen zuen zinea?

Arratsaldez. Beteka eerra hartzen zian lokalak! Eskola ere hor bertan huan. Herriko eskola. Don Krispinekin.

English School
Harvest

Oporretan gaude irailaren 18ra arte
San Jose, 11 bis Tel. 943 143334

Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051
S
DORNUTEGI

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**



Baina zuek maristetara joan zineten.

Herriko eskola ere ezagutu nian, ba. Maristak herrira etorri zianian, gu kolejiuan ibiltzen gitxuan eta orduan gurasoak hiru anaiok maristetara eraman giñuen, baina maristetako hainbeste jende apuntatu huan, ba, ez zeoan lekurik danontzat eta maristetan bi zaharrak hasi hittuan eta ni, ba, ez nittuan berriro monjen kolejiora jungo. Horrela, Don Krispinekin hasi nittuan. Geroxeago, zazpi edo zortzi urte bete nittunian, maristetara. Hemen hiru kurtsuak ein nitian. Hiru gela pasaz. Primera, segunda eta tercera. Hasi-ran Hermano Inazio huan zuzendaria. Gero, Norberto eta gero Cornelio... Jatorrak hittuan.

Ba al zekiten euskaraz?

Bai. Eskola erderaz ematen ginien, baina beaiekin euskeraz eiten ginien. Oso irakasle onak eta jatorrak hittuan.

Bai. Beharbada horregatik botako zituen herritik Zumaiaiko alkateak gerra ondorenean.

Bai. Zenbat gauza gertatu dan mundu honetan... eta oaindikan gertatuko dianak.



Bueno, lehengo gaiari helduz, zuek jai egunean Beduara edo Oikira joaten zineten. Nola joaten zineten, batelean ala oinez?

Normalean, oinez. Txalupan-eta gaztetxo ginianian ibiltzen gittuan. Baina behin 16-17 urtekin sei-zortzi juntatu eta lehenbizi Beduara eta gero Oikira.

Gaztetxo sasoian, orduan, Beduara edo Oikira batelean joaten zineten.

Bai. Igandetan. Fruta arbolak zeuden tokira. Beduara, Oikira, Larrondora ere bai...

“Orduan zenbait fruta toki oso gutxitan zeoan. San pedro sagarrak eta san juan sagarrak oso gutxitan. Ulare arbolak ere oso gutxi. Hik itxian bahuan sagarra, baina auzokoa beti hobia.”

Fruta arbolak zeuden tokira?

Bai. Orduan zenbait fruta toki oso gutxitan zeoan. San Pedro sagarrak eta San Juan sagarrak oso gutxitan. Ulare arbolak ere oso gutxi zibetian. Hik itxian bahuan sagarra, baino auzokua beti hobia. Badakik umetako kontuak. Batelan sartu, arrauna hartu eta... goazen ulariak edo melokotoiak jatera. Askotan.

Batela ere bazenuten, orduan.

Bai. Gabarra, batela eta txanela.

Txanela ere bai?

Bai, eta neguan anguletara jutun gitxuan. Asko gustatzen zikun. Aitta anguletan beti ezagutu ginien.

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A

FARMA ZUMAIA
PARAFARMAZIA

653 01 96 81

PRODUKTUAK

- Ume eta Haurrentzat, Dietetikoak, Kosmetikakoak, hanka eta eskuen zaintzarako...

ZERBITZU BEREZIAK

- Dietista, Naturopatia, Irudiologia, Bach loreak, Masajak (Terapeutikoak, Kirolentzako, Lasiboleak, Estresaren, Antsetoareen, Buruko minen, Zirkulazio arazoan,.... kontrakoak), Akupuntura: orratzekin eta orratzik gabe.

BASADI KALEA, 3 - BEHEA - ZUMAIA

Garai hartan ez zen jende asko ibiliko, ezta?

Orduan oso desberdina huan. Orduan danok arraunian eta baia haundiakin ibiltzen gitxuan. Oain bezin haundiakin eta erriuen erdi-erditik. Baia aurrian sartzen huan eta atzian makinila bat zeoan sokaz lotuta baia gora igotzeko. Hau dek, aurrian sartu, atzian guk soka eragin baia gora igotzeko eta angula bazeon, askara hustu eta berriro baia aurrian sartu. Errio erditik ibiltzeko txanela behar huan, batela ez. Zubi Haunditik, Beduatik barrena, Konderaino igual juten gitxuan. Eta etxera bueltatzeko berriro arraunian.

Marearekin gora eta behera orduan.

Bai, beti mariakin. Eta eguraldi txarra zeonian, gehio harrapatzen huan. Oain bezela. Haizia, euria eta ur-jala etorrerarekin, hobe. Erriuaeren erdi-erditik kanalian, ondo. Bazterretik batelakin ibiltzen hittuan. Dozena erdi bat batela gutxienez. Erditik, baia haundiakin, bi lagun behar izaten huan, baina batelan bazterretik bat nahiko izaten huan.

Soldadutza egin ondoren Beduara eta Oikira oinez joateaz gain, neskatan ere ibiltzen al zineten?

Gutxi. Uda aldian, afalduta Beheko Plazara jeisten gitxuan. Orduan dantzan egiteko afizio haundia zeoan eta hantxe, exerita edo bueltaka ibiltzen



“Errio erditik ibiltzeko txanela behar huan, batela ez. Zubi haunditik beduatik barrena, konderaino igual juten gitxuan. Eta etxera bueltatzeko berriro arraunian.”

gitxuan. Orduan bikoteak edo senar-emazteak dantzan eerki asko eiten zutenak zibetian eta gu haiei begira eoten gitxuan. Eta gero, ba, azkenengo piezak jo eta Erribera kaletik pasakalia bezela eiten huan eta gu hantxe ibiltzen gitxuan, neskaren bat aldamenian tokatzen bazan, bale, baina bestela...

Pasakalia eskutik helduta?

Eskutik helduta?! Bela! Banda joez juten huan eta jendia atzetik eta gu han, ba, neska gazte bat aldamenian eukitze hutsakin pozik.

Ohitura falta, lotsa, dena, ezta?

Badakik, bizimodua asko aldatu dek...Orduan guk ia dana lana ginien. Jaia ailegatzen zanean ere, tailerreko kontuak kontatzen jarduten ginien batek besteari. Horrelakua izaten huan gure igandea.

Tabernetan kantatzen al zenuten?

Bai. Kuadrilan beti.

Tabernaz taberna ibiltzen zineten ala...

Bai eta ez. Aplikatzen zan bezela. Kantatzen hasi ezkeo jende gehio ugaltzen huan, eta kantu gehio. Giro ona sortzen huan. Sapato gauetan, jai eguerdietan... Nik neuk sapatuetan gutxi. Gureztat beti lana izan dek-eta. Soldautza baino lehenagotik lagun batek esan zian ea lagunduko nion



Albaitaria
Itzi Garmendia

Basodi 7 behe - 20750 Zumai - Tel.: 943 143 310
Email: veterisaris@basodivet.com
Web orria: www.basodivet.com

Orduak: 11-13 / Arratsalde: 16-18:30 / Aholkaria gozatu eta larunetan (baita)
Lentak: 093 725 767 / Duzek eta berritzeak

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituzenean

- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabiltza

- Merkantiak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 943 861416

gidatzeko baimen guztiak



bere tailer txikian eta Karmelonetik erten, etxera jun, meriendatu eta arratsaldeko 7,30tako hara juten nitxuan lanera egunero. Igual gaueko 11 arte. Eta sapatuetan ere 9-ak arte. Guria gehiegia izan dek.

Hainbeste lan eta hainbeste zereginenez, andregaia nola egin zenuen, ba?

Ezin, ba. Astirik ez.

Egin zenuen, ordea.

Bai.

Kontatzeko modukoa al da?

Guria, badakik... Urriak ere aurrera eta... 29 urtekin ezkondu nitxuan, baina neskaakin gutxi ibilita. Astirik ba al gitxikan, ba?

Nola?

Ba, neskaren anaia kuadrilakua huan... Joxu... Badakik, jaia ailegatu eta... batek irriparre ein zula eta besteak zera ein zula eta... alkarrekin hizketan hasi, hurrengo jairako geratu eta... listo. Honelako ordutan zitatu eta... Joe! Ez zetoztik bela! Jarri han moilan zai eta... Garai haiek ere... Jun hittuan. Bueno, ondo jun hittuan. Lana gehiegi, hori bai. Baina lanean gus-tora jarduten nian.


Bueno, lan kontuak, mendi kontuak, erriokoak eta haitzeakoak esan dituzu. Hondartzara bainatzera joaten al zineten?

Gutxi. Beti haitzera. Itsaspera.

Eta igerian non ikasi zenuen?

Zubi txikian. Zubi Txikiko arranpla txikian. Ni ez nitxuan artista, baina gu mutil koxkorak ginala Zestuako bainuetxetik jendia plaira etortzen huan eta maria goian zegonian mutilak zubitik ureta salto ein eta:

Bota dirua!, esaten zien. Eta kanpotar hauek dirua botatzen zien. Papel zuriakin bilduta honduan ondo



*“Gu mutil koxkorak
ginala zestuako
bainuetxetik jendia
plaira etortzen huan
eta maria goian
zegonian mutilak zubi
txikitik ureta salto ein
eta: bota dirua!, Esaten
zien. Eta kanpotar
hauek dirua botatzen
zien.”*

ikusteko. Orduan zilarrezko pezeta zeinek botako zian, ba? Dirua hondotik ateratzen zien. Urak hartzera etortzen zianak, danak edadetuak, zorutzen eoten hittuan. Eerki gozatzten zien. Baita mutilak ere. Nik ez. Iregi ondo ikasteko astirik ere ez ginien izan. Iregia laga eta soura jun behar izaten ginien. Bestiak iregian eta gu lanera. Mariarik onenean askotan.

Oporretan goizez tarte bat bada ere ez al zenuten izaten?

Ez. Goizero soura. Artua... belarra... Baserrian beti eoten dek lana. Uda partian bazkaldu eta saltaka Zubi Txikira! Ez gitxuan dijestioai beitzen. Soura jun behar izaten ginien, guk iregi egin nahi... eta lehenbailehen ureta! Ama etortzerako bainatuta. Ama sourako bidean handik pasatzen huan eta berekin batera lanera txin-txo-txintxo.

Hondartzara sekula ez, orduan.

Ez. Garai hartan ez zeoan hondartzarako halako zaletasunik. Jende gutxi juten huan. Kontua atera zak: Karmengo Ama Birjina egun arte ez huan inor juten ureta, urak egun hartan bedeinkatzen zituztela-eta.

Azken galdera. Lehen esan didazu olarrotara joatea asko gustatzen zitzaizula. Nork erakutsi zizun olarrotan?

Anai zaharrak. Pedrok. Hark oso ondo harrapatzen zian. Aldamenean ere bagitxikan maixua. Alejo "Etxenagusi" ren aitta. Oso ona huan. Han, Goiko Torrean, asko juten gitxuan olarrotara. Ardantzakuak eta Pikotekuak ere juten hittuan.

Bueno, Anjel. Uste det nahiko izan-go degula.

Bai. Nahiko berriketa ein diat. ■

EKINTZA

Pentsa dezagun neska batengan. Oso txakurzale bera. Hain animala maitale, ze, behin, kalean aurkitutako txakur elbarri bat bere etxera eraman zuen.

Txakur harekin, aurreztuta zituen diru txamar guztiak xahutu zituen, eta aldakak sendatzeko zakurrak behar zuen ebakuntza agindu eta gainontzeko gorabehera guztiak bete.

Denbora igaro da eta hara nondik jakiten duen neskatxak auzokideari txakur bat opari eman diotela. Eta handik aurrera, eguna joan eta eguna etorri, sumatzen ditu alboko terrazan lotuta eta gorotz tartean dagoen lau hankakoaren lanturuak.

Errukitu da gaztea, baina auzokoen ezetza jaso du errukarria paseatzera ateratzeko bere burua eskeini duenean.

Txakur maitaleak, egoera jasan ezinik, deliberatzen du: Gizarajoa askatuko du.

Lehenbailehen osatu behar du komandoa.

Bata Santxo, bestea Kixote, onkidea eta biek bahitzen dute arimarik gabea, bere jabeak kanpoan diren batean; eta txakurtegrira eraman, eta harrera familia baten esku utzi.

• • •

- Gure txakurraren berri ba al duzue?

- Ez. Zer ba?

- Falta da. Norbaitek eraman du. Atzo goizean lanera irten aurretik terrazan utzi nuen, eta iluntzean, itzuli ginenean, jada falta zen.

- Sentitzen dut, baina ezin dizut lagundu.

- Hori ikusiko dugu.

Auzoak aldegin eta itxi du atea emeki ipurdiaz bultzaz. Geratu da une batez bi eskuak atea eta atzearen artean atrapatu- turik dituela, behera begira, datorkionari aurrea hartu nahirik bezala.

Sartu da salan.

- Txakurra falta zaiela?

- Bai, hala dio. Ederra marka!

- Ez duzu ba zerikusirik izango kontu horretan?

- Ez, ez. Inola ere ez.

- Seguru?

- Jakina. Nola egingo nuen ba halakorik?

- Ez dakit ba. Hain zeunden haserre kontu horrekin!

Txakurra falta da. Etxean ez zegoen inolako zantzurik, eta atea behartu gabe zegoen, beraz susmo guztiak norabide batean doaz: Txakurra, zalantzarik gabe, terraza aldetik eraman dute. Hobeto esanda, terrazatik terrazarako bidea eginez.

Epaiketa saihets ezina da. Abokatu baten laguntza eskatzen du gure neskatxak.

- Lapurreta ezezik, besteen etxean indarrez sartzea ere egotziko dizue. Zerbait pentsatu beharra dago. Goazen zure etxera gertaeren berrantolaketa taxutzera.

Epaiketa eguna iritsi da; neska, abokatuarekin elkartu aurretik, dutxatu eta txukun jantzi da. Biak batera joango dira haren autoan. Hamaiketarako epaitegian egon behar dute.

- Errugabe! Ezin dut sinetsi. Eskerrik asko- esaten dio abokatuari- zugatik ez balitz oraintxe egoera okerrean nengoke.

Bai, abokatuak defentsa ona prestatu zuen, honako tesia garatuz:

Txakurra bera izan zen alboko terrazara, neskarenera, salto egin zuena, jasaten zuen kalbariotik ihesika.

Nola zigortu neska, txakurrari lepokoa askatu eta leku duin batera eramatea besterik egin ez duena.

Neska etxera doa, ez da aurrerantzean lehengo bera izango. Bere bizitzako lehenengo epaiketatik dator. Baina, ai! Zigor txiki bat. Txikia baina zigorra. Bai, zigorra falta zaio erabat zoriontsu sentitzeko. Bestela non geratzen da bere balentriaren merezimendua?

FELIXA

INMOBILIARIA



Amaia

Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01



D'Ana
Fleuropintegia

Kantauri Plaza 6, behea tel. 943 117 406



AIZPURUA
LIBRERIA

Alta-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569

ZINE FORUM

Urriaren 5ean, osteguna, gaueko 10:15ean

no estoy hecho para ser amado

Zuzendaria: Stéphane Brizé

Aktoreak: Patrick Chesnais, Anne Consigny, Georges Wilson



Egunerokotasun zital eta zorigaitzokotik ihes egitea ahal izango duelakoan, bizimodu itzala, grisa, iluna daukan gizonezko heldu batek bere lantoki aurrean

daukan dantza eskolan parte hartzea erabakiko du. Dantza eskola tango eskola da eta leku hura emozio leku, zirrara toki bihurtuko da, batez ere berekin dantza egiten primeran konpontzen den emakumezko bat ezagutzen duenean.

Gizonezko eta emakumezko honen harreman apala kontatuko digu filmak, eta harreman honek zer eragin duen gizonezkoen semeengan eta aita zaharrarengan alde batetik, eta emakumezkoen senargaiarengan eta familiarengan bestetik. Emozioz beteriko filma txikia, baina eder honek, hitzik gabeko hizkuntzan oinarritzen da zenbait unetan, batez ere Anne Consigny-ren begirada gozo eta adierazkorrean.

Iazko Donostiako zinemaldian gehien gustatu zen filma.



- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatu

Juaristi

JATETXEA


Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161



Mota guztietako altzariak

Xanti Osa

Amaia plaza, 7
tailerra: 943 860914
denda: 943 862385



BASUSTA
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

BISITA GIDATUAK

Irailaren 25ean eta urriaren 16an, Deba-Zumaia trekkinga. Irteera: 9:00etan.

Urriaren 2an, ZUMAIKO BIRA, 8:40an aterata.

Urriaren 9an, Algorri-Itzurun. 12:00 etan, bi orduko ibilbidea. Urriaren 15ean, Zumaia kulturala. 16:30ean aterata, Beobidieren museoa, parrokia, kanpandorra...

Informazioa: Turismo Bulegoan (tel.:943-143396)

ERAKUSKETAK

Irailaren 7tik 17ra: "I. ARGAZKI RALLYA" erakusketa. Alondegian.

Irailaren 21etik urriaren 12ra: ESTHER GALLARTA, Alondegian.

UDAZKENEKO ANTZERKIA

Urriaren 16tik 22ra, ANDERSEN ASTEA, Foronda kultur etxean.

Urriaren 20an, "AHULKIAK" Urriaren 22an, "AHATETXO ITXUSIA"

Azaroaren 17an, TXALOREN "ARTE"

Azaroaren 19an, "Haurrentzat GOLDEN"

Abenduaren 15ean, "Nasdrovia Chekov"

Abenduaren 17an, "La domadora de monstruos"

IRAILA

16, larunbata, OLARRO EGUNA

09:00etan, DIANA txistulariekin.

Goiz partean, "II. ARGAZKI RALLYA". Izen ematea 08:30etik 09:30era, Turismo Bulegoan.

11:00etatik 14:00etara 11.00etatik 14.00etara

Gernikako parkean haurrentzat "KANTAURIKO ARRANTZALEAK" tailerra. (arrantza jolasak,

puzgarriak...)

11:00etatik 14:00etara Eusebio Gurrutxaga plazan, Elikagaien azokatxo, eta hauek dastatzeko aukera.

11:00etatik 14:00etara ate irekiak KOFRADIKO arrainen benta aretoan.

11:15ean, hamaiketako Pulpo elkartearen olagarro harrapatzaile izandakoentzat.

12.00etan, SUGARRI txarangaren kalejira.

10:00etatik 13:00etara, sukaldariak lanean frontoi txikian: OLARRO-PATATA LEHIAKETA, herriko elkarte gastronomiko eta kuadrilen artean. Jarraian epaia eta saribanaketa.

12:30ean, BEHEKO PLAZA ABESBATZAREN saioak herrian zehar.

13:30ean, Olarro Zopa Erribera Kalean.

14:30ean, HERRI BAZKARIA.

17:00etatik 20:00etara, ate irekiak KOFRADIKO arrainen benta aretoan.

18:30etik aurrera, Erribera kaleko txosnetan olagarro brotxetak eta sagardoa. Ordu berean, SUGARRI txarangaren saio berriak.

20:30ean, Getariako Konpartsaren eskutik "Moulin Rouge" musikala, Eusebio Gurrutxaga plazan hasi, erribera kaletik pasa eta arranpla parean izango du amaiera.

23:00etan, berbena EGAN taldearekin, Eusebio Gurrutxaga plazan.

23, larunbata

10:30ean, Kofradian, PLASTIKA TAILERRAK. Txinparta euskara taldeak antolatuta.

29 eta 30ean ARTADI AUZOKO JAIAK.

30, larunbata

17:00etan, Zumaiko X. Zakila Bira.

URRIA

1, igandea

KILOMETROAK 06 - Oiartzun Autobusa antolatuko du Txinparta euskara taldeak.

Olarru Eguna

Berrito ere izango dugu aukera garro goxoak dastatzeko...



Alberdi

Gizonetzkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155



Juan belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

ITSASKI

SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058



AUTO-ESKOLA



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua

- Praktika eta azterketak Azpeitian

- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

ZUMAI A

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

ile-apaindegia



Solarium

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21



Zumaia Hotela


Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64



Juan Belmonte, 6



Urumea, 6 Tel. 943 862083



Galdona

denda:

Mendaro marinela, 1

tel.: 943 143 346

biltegia:

Jose M^a Korta Industrigunea

Pab. A6.1, 2-5 mod.

tel.: 943 861 117

fax: 943 861 330

industriarako nahiz etxerako
era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



- Txarkuteria bikaina
- Inguruko baserrietako haragirik onena

• Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak